

opusdei.org

Erlojuaren kontra bizi gara, probetxurik handiena denborarik gutxienean lortu nahian

Ikasleek antolatutako osasun-
zerbitzuan banatu diren
produktuak Nafarroako
Gobernuaren diru laguntzaz
lortu dira; besteak beste, 1.500
betaurreko eraman dituzte,
bigarren eskukoak eta
graduazio guztietakoak

Nairobotik 80 kmra, Masiin -
Matxakos probintzian – duela hamar
urte osasun-zerbitzu bat antolatu
zuten medikuntzako ikasleek.
Harrezkero eten gabe jarraitu dute
lan honekin udetan. Nafarroako
Unibertsitateko Belate Elkarte
unibertsitariora da antolatzailea,
ONAY gobernuz kanpoko erakunde
baten laguntzaz eta Strathmore
Educational Trust bertako bazkide
duela. Guztira 150 ikaslek parte
hartu dute urte hauetan.

Oskar Torre bilbotarra,
medikuntzako 6. ikasturteko ikaslea,
gehien joan direnetakoa dugu.

Zer eginkizun duzue?

Oinarrizkoena kontsultategiko lana
da. Aurrena zenbait kontsulta-gela

prestatu behar dira, sendaketa gela, botika-gela eta harrera antolatzea ere bai. Infekziozko gaixotasunen tratamenduak eta sendaketak egiten ditugu: zauriak, garbiketak, abszesuak eta abar. Erabiltzen ditugun produktuak Nafarroako Gobernuaren diru laguntzaz edo dohaintzen bidez lortzen ditugu; eta guk dohain banatzen ditugu, noski. Besteak beste, 1.500 betaurreko eramango ditugu aurten, bigarren eskukoak eta graduazio guztietakoak. Era berean, eskoletan osasun heziketa hobetzen saiatzen gara hitzaldiak emanez eta liburuxkak banatuz.

Zer egoeratan dago eskualdea?

Topiko bat izan arren, baliabideen gabeziak bizitzako esparru guztiak eragozten ditu: elikadura, hezkuntza, garbitasuna, arropa, azpiegiturak... Dena zaildu egiten du. Batzuetan, beste planeta batean zaudela ematen

du. Kontsultategian botikak eta osasun materiala falta dira; gainera, ez dago haren ardura daukan medikurik.

Zer ikas dezake unibertsitario batek lan gune honetan?

Gauza asko. Materialismo eta kontsumismoak itota gaudela. Guziaz presaka egiteko gaitzak jota bizi gara, probetxurik handiena denborarik gutxienean lortu nahian. Hemen estresa da nagusi. Han, pazientzia handia duten pertsonengandik ikasi egiten duzu. Ez dira erlojuaren aurka aritzen eta maite erakutsiak eskertu egiten dizkizute. Ikusgarria da, gainera, oinazeak eramateko erakusten duten sendotasuna. Garbi ikusten duzu txorakeriengatik kexatzen garela gu. Ia ezer ez daukaten arren, oso eskuzabal dira.

Aldi berean, Kenyako kulturatik ere asko ikasten dugu, lan gune hau asko laguntzen diguten Kenyako

unibertsitarioekin batera egiten
baitugu.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/erlojuaren-kontra-bizi-
gara-probetxurik-handiena-denborarik-
gutxienean-lortu-nahian/](https://opusdei.org/eu-es/article/erlojuaren-kontra-bizigara-probetxurik-handiena-denborarik-gutxienean-lortu-nahian/) (2026 Mar 13)